

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Ikasgaia: Biologia eta Geologia

HBI: Geodibertsitatea ikertzen

Ikasturtea: DBHko 1. maila

DESKRIPZIOA

HBI honen helburua da geodibertsitatea eta hura babestu eta zaintzeko beharra ikertzea.

Sekuentzia didaktikoa askotariko ikaskuntza-egoerek osatzen dute, erronka gisa aurkeztuta, zenbait saiotan lantzeko. Horiek guztiek STEM konpetentzia eta gainerako hezkuntza-konpetentziak garatzen laguntzen dute, baita XXI. mendeko hezkuntzaren erronkak ere.

Erronka bakoitza ikerketa gidatuen bidez ebazten da, azken ekoizpen batekin lotuta.

METODOLOGIA

Erronka motibatzaileetan oinarritutako ikaskuntza: ikerketa zientifikoko eta ikaskuntza kooperatiboko prozesua dakarte, HBIaren printzipioekin bat

ERRONKA / AZKEN PRODUKTUA

HBIan zehar, erronka bakoitzarekin lotuta zenbait ekoizpen sortzen dira, eta azken bi produktuekin osatzen dira:

- Lurpeko babesleku baten planifikazioa, asteroide baten aurrean babesteko
- Udalerriaren gida geologikoa egitea

ATAZAK

- Lurraren geruzei eta arroken zikloari buruzko poster eta kontakizunak egitea
- Geosferari eta zikloari buruzko eskulanak eta jokoak.
- Mineral eta arroka nagusiak identifikatu eta sailkatzea
- Kristalak sortzeko esperimenduak
- Baliabide mineralen erabilera sasizientifikoari eta etikari buruzko irakurketa eta eztabaidak.
- Espainiako geoparkeen lankidetzeta-mapa
- Etxeko material geologikoak identifikatzea
- Lurpeko babesleku baten planifikazioa, asteroide baten aurrean babesteko
- Udalerriaren gida geologikoa egitea

EBALUAZIOA

Askotariko proposamenak, aniztasunari erantzuteko:

- Ebaluatzeko eskalak, irakasleak edo ikasleak erabil eta egoki ditzaketen irizpideekin (koebaluazioa, autoebaluazioa)
- Hausnartzeko ikaskuntza-egunkariak (metakognizioa)
- Ikaskuntza-portfolioaren proposamena

TALDEAK

Talde mota desberdinetan egiten da lan, proposatutako atazen arabera:

- 4ko taldeak
- Binaka
- Banako lana
- Ikasgelako taldea

SAIO-KOP.

- Ikasgelako 24,5 saio